

Gaia: 2008ko balorazioa eta proposamen berriak

Data: 09/03/02

Lekua: Goieki, Ordizia Iraupena: 16.00-18.30

Honako hauek bildu gara

- Leire Arandia (D'elikatuz)
- Nerea Tausche (Zegama turismo bulegoa)
- Aitziber Makazaga (Aldabe, S.Coop)
- Amaia Ajuria (Langai)
- Loli García (INEM)
- Ainhoa Aizpuru (Bic Berrilan)
- Andoni Alustiza (Orkli)
- Luis Angel Erauskin (Estanda)
- Emilio Txurruka (Doilantegia)
- Juando Gaztañaga (Goilan)
- Andoni Murua (Cald. EFZ)
- Iñigo Andola (Andola 07)
- Jose M^o Ormazabal (Goierri Fundazioa)
- Iñaki Dorronsoro (Goierri Berrikuntza Gunea, LKS)
- Jose Manuel Zubizarreta (Goimen)
- Garikoitz Nazabal (EHNE)
- Alberto Irastorza (EHNE)
- Adolfo Masid (LAB)
- Arkaitz Gerrero (LAB)
- Patxi Aierbe (Zaldibiako udala)
- Patxi Plazaola (Beasaingo udala)
- Patxi Albisu (Lazkaoko udala)
- Edurne Albizu (Zegamako udala)
- Jose Manuel Oria (Zeraingo udala)
- Iker Galparsoro (Goieki)
- Niko Errasti (Goieki)
- Maialen Sanchez (Goieki)
- Iker Azurmendi (Goieki)
- Niko Osinalde (Goitur)
- Ander Lizaso (Goitur)
- Miren Estensoro (Goieki)

Lan programa

1. 2008an ekonomia arloan Goiekik aurrera eraman dituen ekimenen inguruko **informazioa ematea:** ZER EGIN DUGU AURTEN?
2. 2009an eskualde mailan aurrera eraman beharreko ekonomiako **ekintza konkretuak proposatzea:** ZER EGIN GENEZAKE HEMENDIK AURRERA? Ekintza proposatzeko taldetan batuko gara, ondoren hemen irtendakoa baloratuz.

Lanari ekin diogu

1. ZER EGIN DUGU AURTEN?

Galdera honi erantzuteko, 2008an aurrera eramán diren ekimenen nondik norakoak azaldu ditugu, kasuan kasuko pertsonak aurkeztuz. Horrela jarraian aurkeztzen ditugu laburbilduz azaldu ziren puntuak.

ZERBITZUALDEA. Enpresen beharrak asetzeaz arduratzen den saila.

2008ko ekintzak:

LANKIDETZA SARE moduan izendatzen dugun agente ekonomikoz osaturiko sarearen baitan, gaurkoan ospatu dugun eskualdeko foro ekonomikoaz gain, enpresa traktoreen foro eta martxan jarri berri dugun enpresa txikien foroaren dinamizazioan aritu gara lanean. Sare honek, kolaborazioaren tresna oinarri izanik, eskualdeko behar ekonomiko eta hau osatzen duten enpresen arazoei aurre egiteko helburua izango du, lehiakortasun ahalmena handituz. Hemendik sortu dira hain zuzen, enpresa traktore eta euren subkontratisten arteko harremanak sendotzeko helburuaz, aurrera eramániko esperientziak (CAF eta Orkliren kasuak esaterako).

Honekin loturik, Orkestrarekin (Lehiakortasunerako Euskal Institutua) lankidetzan, 2008.urtean egindako Eskualdeko Lehiakortasun Diagnostikoa aurkeztu dugu (baita honen laburpena banatu ere), horrez gain une honetan martxan jarri dugun eta eskualdeko industria jarduerako sektore pilaketa posibleak identifikatzea helburu izango duen proiektu berri batekin batera. Modu berean, eskualdeko enpresa jarduera bilduko duen mapa interaktibo/birtuala ari gara osatzen, web orriaren berritzeari loturik (intraneta jarriko da martxan, sarean dauden enpresen arteko harreman zuzenak errazteko).

BERRIKUNTZAren baitan, Eusko Jaurlaritzak, SPRIren eskutik martxan jarri duen INNOVA proiektuaren barnean, aurtén 5 sentsibilizazio tailer antolatu dira (70 enpresek hartu dute parte bertan eta 25 berrikuntza agenda martxan jarri).

Goiekitik, eskualdeko enpresei bestetik, ERREFLEXIO ESTRATEGIKO bat egiteko doako aukera bat eskaintze zaie. Modu honetara, erreflexio horren emaitza izango den plan operatiboa izango da politika eta antolaketa eredu ezberdinak proposatuko dituen, aurretik definituriko helburuen baitan betiere. 2008.urtean eskualdeko 12 enpresek parte hartu dute ekimen honetan.

Azkenik, azken bi urtetan martxan jarritako ingurumen gaietan Goiekitik enpresei eskaintzen zaien informazio eta aholkularitza zerbitzuaren berri eman dugu. Argi dago, zentzu horretan, enpresa txikienek batez ere, laguntza eta babes baliagarria jasotzen dutela zerbitzu horrekin.



INKUBATEGIA-EKINTZAILETASUNA. Enpresa ekimen berriak.

2008ko ekintzak:

2008.urte hasieran ospatu zen eskualdeko foro ekonomikoan azaldu zen moduan, balio erantsi altuko enpresen sortze eta erakartzea lehen mailako egiteko izan da (erlazio kanalak sortzea, eta profesionalen hustuketa bat enpresa, unibertsitatea, eskola profesionalen artean, esperientzia bizirik eta irekia mantentzeko eta ekintzailetza/berrikuntza jokabideak sustatzeko). Horretarako lehen pausoak martxan jarrita, irailaren 22an BIC BERRILAN-ekin bilera bat burutu zen lankidetzaren hitzarmen bat proposatzeko eta horrela oinarri teknologikoa duten proiektu guztiei aholkularitza eman ahal izateko eskumena lortu Goiekiko Inkubategian.

Enpresa – Inkubategia sustatu eta hobetzeari buruz, urtean zehar komunikazio kanpainak egin dira bide ezberdinetan ekintzailetasuna sustatzearen.

2008.urtean zehar, Inkubategitik 120 pertsona pasa dira negozio ideia batekin, hauetatik 55ek beraien negozio ideian inguruan bideragarritasun plana landu dute negozioaren bideragarritasuna aztertzeko. 42 enpresa berri sortu dira eta hauek 67 lanpostu sortu dituzte.

Azkenik, 2008.urtean Enpresa Ekimen Berrien XII. Sariaketa martxan jarri da, ekitaldi honen sariak 2009ko maiatzean banatuko dira Ekintzailearen Egunean.

TURISMOA. Goitur; eskualdean turismoaren sektorea sustatzeaz arduratzen den saila

2008ko ekintzak:

Goiturren lana aurtengoan lau arlotan zehaztu da batez ere:

SUSTAPEN arloan, argitalpen, publizitate, turismo azoka eta “Gipuzkoa en verde” ekimenaren inguruan bideratu dira aurrera eramango ekintzak.

KOMERTZIALIZAZIO arloan, tour-operatzaileekin sinaturiko akordioak nahiz eskualdean bertan informazio zabalpena edota garraio publikoko enprekin izaniko kontaktuak azpimarra daitezke.

INFORMAZIOAREN esparruan, jasoriko kontsulten erantzuna nahiz web orriaren mantenuan aritu gara.

DINAMIZAZIO eta AHOLKULARITZA gaitan, eskualdeko udalerri eta agente turistikoekin etengabe harremanetan egoteaz gain, 2007-2010 Goierriko Lehiakortasun Turistikorako egitasmoari ekin diogu, kanpotarren bisitak antolatu eta Goierriko esperientziaren zabalkundea indartzeaz gain.

Modu berean, ekintza hauek guztiak modu zabalago batean azaltzen dituen dokumentu bat banatu diegu forora etorri diren guztiei, informazio sakonagoa eskura izan dezaten.



2. ZER EGIN GENEZAKE HEMENDIK AURRERA?

Honen ondotik horrela, hemendik aurrera egin ahal diren ekintzen proposamenera jo dugu, horretarako lau taldetan banatu garelarik:

1.TALDEA. INDUSTRIA

Partaideak: Andoni Alustiza (Orkli), Luis Angel Erauskin (Estanda), Andoni Murua (EFZ), Emilio Txurruka (Doilantegia), Iñigo Andola (Andola 07), Amaia Ajuria (Langai), Juando Gaztañaga (Goilan), Jose M^a Ormazabal (Goierri fundazioa), Adolfo Masid (LAB), Arkaitz Gerrero (LAB), Patxi Plazaola (Beasaingo udala), Patxi Albisu (Lazkaoko udala), Patxi Aierbe (Zaldibiako udala), Niko Errasti (Goieki) eta Miren Estensoro (Goieki).

2.TALDEA. TURISMOA

Partaideak: Leire Arandia (D'elikatuz), Nerea Tausche (Zegama turismo bulegoa), Aitziber Makazaga (Aldabe), Edurne Albizu (Zegamako udala), Niko Osinalde (Goitur) eta Ander Lizaso (Goitur)

3.TALDEA. LEHEN SEKTOREA

Partaideak: Jose Manuel Zubizarreta (Goimen), Alberto Irastorza (EHNE), Garikoitz Nazabal (EHNE), Jose Manuel Oria (Zeraingo udala) eta Iker Azurmendi (Goieki).

4.TALDEA. BERRIKUNTZA ETA SUSTAPENA

Partaideak: Loli García (INEM), Ainhoa Aizpuru (Bic Berrilan), Iñaki Zabalo (Goierri Eskola), Iñaki Dorronsoro (Goierri Berrikuntza Gunea, LKS), Iker Galparsoro (Goieki) eta Maialen Sanchez (Goieki).

Ikusi bezala, foroan parte hartu duten agenteen artean, bakoitzak bere interesaren arabera aukeratu du zein taldetan parte hartu eta ondorioz, irizpide hori erabili da hauek sortzeko.

Bestetik, talde bakoitzari, taldean jorratzen zen gaiaren arabera, aurreko foroan definituriko ekintzen zerrenda eskurarazi zitzaion, hain zuzen ekintza hauen berri izan eta izandako bidez informatzeko. Hain zuzen, kolore ezberdinak erabili ziren, landu ez diren ekintzak (beltzez), hasitakoak (berdez) edo amaitzear daudenak (gorriz) zein diren jakin ahal izateko.

Hona hemen taldekako lan honetatik jasotako ekintzen zerrenda eta ondoren talde osoak baturik, jaso zuten balorazioa (boto kopurua):

EKINTZAK

1. LANKIDETZA SAREA. Enpresa txikiei euren proiektuak aurrera eramateko, gidaritza eta baliabideak eskaini 8
2. LANKIDETZA SAREA. Merkaturatzea sendotzeko ekintzak enpresetan 14
3. LANKIDETZA SAREA. Lanekuaren kualifikazio faltari aurre egitea, batez ere emakumearen integrazioa jorratuz 12
4. LANKIDETZA SAREA. Enpresa traktore eta hauen eskualdeko enpresa hornitzaileen arteko harremanak sendotzea 27
5. Bertan ekoizten diren produktuen kontsumoa sustatu. Enpresa, ikastola eta zahar egoitzetako jantokietan kontsumitzen diren produktuak bertakoak izan daitezkeen bi alderdien arteko "komertzializazio" bideak garatu 37
6. 1.sektoreko aktibitateak martxan jartzeko edo garatzeko orduan beste jardueri ezartzen zaizkien tasa berdinak ezartzeak zailtasunak sortzen ditu (lizentzien tramitazioan, ur kontsumoak...), egoera ezberdinak kontutan eduki behar dira lirartekeelarik; adibidez, industria eta 1.sektorea. Zenbait udalengan 1.sektoreko jardueri ez zaizkie tasak aplikatzen, beraz eskualde mailan tasen azterketa bat egitea proposatzen da egon daitezkeen egoera ezberdinak ezagutu eta aztertzeko 1
7. Arau subsidiarioen arloan, lehen sektore eta lurren kudeaketan sakontzea bultzatzea 2
8. Sektore emergenteak izan daitezkeen arloetan oinarritu ideiak erakartzeko, "exploratzailen gela" sortu Goierriko Berrikuntza Gunean kokatu behar den Inkubategi Berria. 14
9. Unibertsitate, enpresa, zentro teknologiko eta gainerako agenteez osaturiko sare bat sortu ekintzailetasunaren inguruan, sistematikoki lan egiteko ahalmenaz 11
10. Turismo arloan eskualdeko promozio kanpaina ugaltzea 15
11. Eskualdeko museoen kudeaketa plan bat aurrera atera 7
12. Goiturren parte hartzea turismoko produktu eta nitxo berrietan, Basquetourrekin elkarlanean 1

Dagokien lehentasunaren arabera hiru mailatan sailkatu ditugu ekintza hauek (puntu gehien jaso dituztenetatik gutxienera):

- Bertan ekoizten diren produktuen kontsumoa sustatu. Enpresa, ikastola eta zahar egoitzetako jantokietan kontsumitzen diren produktuak bertakoak izan daitezkeen bi alderdien arteko "komertzializazio" bideak garatu
- LANKIDETZA SAREA. Enpresa traktore eta hauen eskualdeko enpresa hornitzaileen arteko harremanak sendotzea

- Turismo arloan eskualdeko promozio kanpaina ugaltzea
- LANKIDETZA SAREA. Merkaturatzea sendotzeko ekintzak enpresetan
- Sektore emergenteak izan daitezkeen arloetan oinarritu ideiak erakartzeko, "exploratzailen gela" sortu Goierriko Berrikuntza Gunean kokatu behar den Inkubategi Berrian.
- LANKIDETZA SAREA. Lanekuaren kualifikazio faltari aurre egitea, batez ere emakumearen integrazioa jorratuz
- Unibertsitate, enpresa, zentro teknologiko eta gainerako agenteez osaturiko sare bat sortu ekintzailetasunaren inguruan, sistematikoki lan egiteko ahalmenaz

- LANKIDETZA SAREA. Enpresa txikiei euren proiektuak aurrera eramateko, gidaritza eta baliabideak eskaini
- Eskualdeko museoek kudeaketa plan bat aurrera atera
- Arau subsidiarioen arloan, lehen sektore eta lurren kudeaketan sakontzea bultzatzea
- 1.sektoreko aktibitateak martxan jartzeko edo garatzeko orduan beste jardueri ezartzen zaizkien tasa berdina ezartzeak zailtasunak sortzen ditu (lizentzien tramitazioan, ur kontsumoak...), egoera ezberdinak kontutan eduki beharko liritekeelarik; adibidez, industria eta 1.sektorea. Zenbait udaletan 1.sektoreko jardueri ez zaizkie tasak aplikatzen, beraz eskualde mailan tasen azterketa bat egitea proposatzen da egon daitezkeen egoera ezberdinak ezagutu eta aztertzeko
- Goiturren parte hartzea turismoko produktu eta nitxo berrietan, Basquetourrekin elkarlanean

Horrela, nahiz eta ekintza orok ez duten puntuazio bera jaso, sail bakoitzaren egitekoan garrantzi bera izango dutela aipatu da. Modu berean, martxoaren 17rarte, proposamenak edo ideiak jasotzeko prest gaude, posta elektronikoko (miren.goieki@goierri.org) nahiz telefonoz (943 160040) egin ahalko direnak.

Orain, zer?

Proposaturiko ekintza guzti hauek Goiekiko Administrazio Kontseiluari aurkeztuko zaizkio eta honek onartu ostean, ekintzak martxan jartzeko lan programa definituko dugu.

Honenbestez, amaitutzat jotzen dugu 2008.urteari dagokion Arlo Ekonomikoko foroa eta hurrengo urtean ikusiko garelakoan agurtzen gara.